

# Euskararen muga 1980. urtean

KOLDO ARTOLA eta JOSU TELLABIDE\*

**E**uskararen muga aipatzerakoan ohizko muga da kontutan hartzen duguna, hau da, mende batzutatik hona beti atzeraka etorri zaigun lerro tradizionala. Beraz, muga honi buruzko zenbait argitasun emango dugunean, ez dugu, jakina, euskaldun-kopuru garrantzitsuak bertan izan arren, hortik kanpora diren Tafalla, Lizarra, Baiona, Gasteiz, Santurtzi etab. bezalako herrien berri emango.

Hala ere hemen ez darabilgu L.L. Bonapartek, mugak direla-ta, bere garaian erabili zituen eritzi berberak: hau da, eta gauza jakina denez, hark erabilera gutxiko eskualdeak kolore apalago batez agertarazi zituen, hauen inguruko beste zenbait zuritan utziz, hauetako batzutan ere bai, seguru asko, artean euskararik erabiliko ez zuten euskaldun batzu geratuko baziren ere: Nafarroako Burundarekin mugatzen duen Arabako herrixka batzu eta Urbasaz hegoaldera geratzen den Ameskoa, esaterako, ditugu bereziki gogoan, beste zenbait lekutan ere, eta agian ez hain bakanak, euskaldunak geratuko zirela pentsa daitekeelarik.

Guk, aldiz, oso bestela jokatu dugu: bertako euskaldun bakarren bat aurkitu dugun lekuan euskalduntzat jo dugu leku hori, zeren egoera hau erreala ez bada ere ezin baitaiteke esan herri hori euskaldun ez denik... harik eta hantxe, bertan sorturiko azken euskaldunaren arnasa guztiz itzaltzen ez den arte.

Eta argitasun hau emanik, muga guzti horiek kurrituz zer aurkitu dugun esatera pasako gara, Mendebaldetik hasi eta Ekialderantz abiatuko garela.

## BIZKAIA

– GETXOKo SANTA MARIA auzoan eta udalerriaren iparralde guztian euskaraz mintzatzen da. GOBELAKo faduretan zeuden baserritarrak ere bai, berdin, euskaraz mintzo dira. ALGORTAn bertako zahar batzuk badakite; NEGURI, ROMO eta AREATZA (LAS ARENAS) auzoetan oso zaila gertatzen da bertako euskaldunekin topo egitea.

– LEIOAn euskara ongi mantentzen dute bertakoek, baserritar direnek eta izanikoek behintzat; ONDITZ, ELEXALDE eta UDONDOn, batez ere.

\* Donostiako ARANZADI Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoak.

– ERANDIOko udalerrian euskaraz, normalki, ASUA, ERANDIO GOIKOA, FAGUETA (FANOS gazteleraz) eta inguruko auzoetan mintzatzen da; ibaira begira dauden auzoetan, aldiz (DESIERTU-LUTXANA eta ALIZAGA, esaterako) bertako zahar batzu ditugu bakarrik mintzatzeko gai direnak. ASTRABUDUAN eta ARRIAGAN bertako baserritarrek badakite. GOIERRI guztiz euskalduna da.

– BILBOko udalerrian (eta beti ere euskara txikitan ikasi eta mantendu duten bertako pertsona adinekoei gagozkiela, noski), BUXA, BUXAGOITI, SEBERETXE, BOLINTXU, IRUSTA, LARRASKITU (4-5 etxe), SAN ROKE, SARATXE, ARTXANDA, OTXARKOAGA, ARBOLANTXA (hemen zenbait gazte ere bai tarteko) eta BERRIZen (DEUSTUko auzo bat hau) badira banaka batzu.

– Izan ere Bonapartek orduko Bilbo erdalduntzat jo bazuen ere, kon-tutan hartu behar da ezen artean bilbotar ez ziren DEUSTU, BEGONA eta ABANDOKo elizateak euskaldun bezala sailkatu zituela, arestian aipaturiko auzotxoak hiru elizate hauenak izaki.

– DEUSTUko erriberetako baserritarrak, orain dela urte asko hementik boteak, euskaldunak ziren, eta hamar urte besterik ez da, bakarrik, DEUSTUko EGUZKITZE baserri-auzoko amona euskaldun bat ZORROTZAN hil zela. Beste alde batetik, KASTREXANA, ZORROTZA hori bera, OLABEAGA, BASURTU, INDAUTXU, ERREKALDE, IRALA eta ZAMAKOLA, hots, ABANDO zaharra osatzen zuten auzo guzti haue-tan, urte-mordoska da bertako euskaldunen aztarrenik ezagutzen ez dela. ZORROTZAN mende honen hasierarako galdu zen euskara. BEGONA, BOLUETA eta ZURBARANen ez dugu bertakoen aztarrenik aurkitu. BOLUETAN hala ere, orain urte askorik ez, bazen bertako euskaldunik.

Adierazi egin nahi dugu, baita ere, BILBOn bertan –kaleko Bilbon, alegia– badela familia bakanen bat euskara gorde duena, jakitera iritsi garen- ez.

– BARAKALDOko udalerrian, bere aldetik, ez BURTZEÑAN, ez LUTXANAN, ez «SAN VICENTE-BARAKALDO»n, ez da aztarrenik geratzen, ZORROTZAN ere gaurregun geratzen ez den bezala.

Arabako OKONDO aztartzen ari ginela, halere, ARTIBE baserrietako –BARAKALDOko ALONTSOTEGIn, halajaña!– andere batekin izan gin- nen (85 urtetakoa, azken 60ak Okondon ezkondua), euskaraz ederki asko egiten zuena. Hala ere, eskualde euskaldunetatik honuntz «inmigraturiko» familia batzu pasa zirela somatzen uste dugu, Bonaparte printzeak zertzela- da hau aipatu ez bazuen ere.

BILBO inguruetakoko euskararen mugetaz orokorki hitzegiteko, garran- tzia haundia du ENEKURI-ARTXANDA mendi-gateak, zeren honen ipar- rralderantz kokatzen diren baserririk gehienak euskaldunak baitira. Hegoal- detik PAGASARRIko hegia euskalduna da, beraz mende honen hastapene- tik orain arte DEUSTU eta ABANDOKo ibarrak galdu ditu euskarak.

– ARRIGORRIAGAKo kalean gutxi erabiltzen da euskara, baina base- rritarrek denek ezagutzen dute. Dena den, LA PEÑA / ABUSU eta OLLARGANen ez dugu bertako euskaldunik aurkitu. Auzo hauetan eus-

kara, bertako meatzen eta BILBOKo hiriaren hurbiltasunagatik galdu zen; bertako seme eta euskalduna zen Francisco LANDETA 1975. urtearen inguruan hil zen, 80 urte beterik.

– ETXEBARRIko baserritarrak, hala GANGUREN mendialdekoak nola URIBARRIn sorturikoak, euskaldunak dira, nahiz azken auzo honetakoak bertan fabrika entzutetsu bat egitearren bertatik erauziak izan ziren.

– BASAURIIn –SAN MIGUEL bezala ezagutzen dute inguru horretako euskaldunek– euskaldunak dira ia denak: ZUBIALDEA, FINAGA, ATXIKORRE, ARTUNDAGA... baserrietakoak, hain zuzen ere.

Noski, BILBOn eta ezker-aldeko hiri haundietan –BARAKALDO, SESTAO, PORTUGALETE eta SANTURTZI, esaterako–, eta azken urte hauetan bertan euskaldunaz etorri den jendea alde batera utzita, euskaldun asko samar bizi da udalerrri euskaldunetatik beste hauetara etorrira.

– Bestalde, UGAO (MIRAVALLS), ARRANKUDIAGA (eta ZOLLO), ARAKALDO, OROZKO, OTXANDIO eta UBIDEA bezalako muga-herriek euskaldun-kopuru haundiak dituzte.

## ARABA

– LAUDIOko euskaldun zaharren arteko egoera ez da, egia esan, batere ona, diren bakanak ARETAn, PLAZAn, eta GARDEAn aurki daitezkeelarik. SUMENTSA baserrian badira ongi mintzo diren bi anaia. DUBIRISen eta «SANTA MARIA DEL YERMO»n duela hogeitatu bat urte hil ziren bertako azken euskaldunak eta ISUSIn bada gizon zahar bat mintzatzeko gai dena. LARRAZABAL, SOLAUN eta OLARTE baserri-auzoetan, aldiz, ez dugu mintzatzeko gai den inor aurkitu. OLARTE auzoko SENAGORTA baserriko nagusia 1968an hil zen, 87 urtetan; euskalduna, inguru honetako azkenekoa ote zen pentsa daiteke.

– OKONDO aldean aspaldi galdu zen euskara, azken-azkenik, joan den mendean, OKONDOJENA auzoan (OKONDOGOEINA).

– AMURRIOn, gaurregun, bertako euskaldunik ez bada ere, ONSOÑO deritzan baserri-auzoan orain dela 25 urte bazirela dirudi. Lehen LEZAMA eta orain AMURRIOkoa den BARANBION, aldiz, badira, «BARAMBIO DE ABAJO» (BARANDIO BEITI) deitu auzoan, bertako beste bi anaia zahar, zerbait mintzo direnak; herri honetan ere, azken urteotan, beste euskaldun zahar batzu zendu dira.

– AIARAKo LUXAONDO herrian –Aiara lurralde ederreko herrixka, hau– ez dugu euskaldunik aurkitu. Itxura denez joan den mendean galdu zen euskara han nahiz gaurregun Bizkaiko OROZKO harango baserriar bat edo beste inguru hauetan bizi –LAUDION, BARANBION eta AMURRIOn batez ere–, guztiz euskaldunak mantenduz gainera.

– LEGUTIOko (VILLARREAL) kalean badira bertako pertsona adintsuak ongi asko mintzo direnak eta baita OLLAETA (OLLERIAS)

auzoan, ELOSU herrixkan, NAFARRATEn (hauek LEGUTIO**n** bizi dira), eta URRUNAGAn ere (hemen hamar-hamabi bat euskaldun).

LARRABEA baserrian, jakitera iritsi garenez, bazen euskaldun jenderik eta GOIAIN baserrian, gaurregun ere, bada euskaraz dakien zaharren bat.

BETOLATZAn URRUNAGAk**o** familia euskaldun bat bizi da. URBI-NA eta LUKU herrietan, itxuraz, ez da jada euskaldunik, bertako azkenekoak duela hamar-hogei bat urte desagertu zirelarik. URBINAn, Teodoro ORMAETXEA, bertako semea eta euskara zerbait omen zekien gizona, 1975.ean hil zen 92 urte zituela. LATXE eta GALZARRA, ARRAZU-UBARRUNDIA eta LEGUTIO bitarteko mugan zeuden bi etxeak –LATXE**k** zutik dirau oraindik– euskaldunak ziren duela 60 urte. Elizaz, bestalde, URBINAK**o**ak ziren.

– ZIGOITIAri dagokionez, ZESTAF**e**k**o** SAN PEDRO eta AKOZ-TAk**o** AMARREK**o** PARTE baserrietan badira mintzatzeko gai diren hiruzpalau pertsona, horietako bat MURU**U**An bizi dela. ETXAGU**EN**en duela bost urte hil zen agure bat bertako azken euskalduna zela esan ziguten. Udallerri honi atxekiak baina LEGUTIO**k**o SANTA ENGRACIA auzoaren mugan, badira bospasei baserri euskaldun: SUBIBARRI, BEKO ERROTA, ARKEZTO eta abar.

– GANBO**A**n eta BARRUNDIA**n** badira bi herri, bertako pertsona bakan batzuk –bat edo bi bakoitzean– euskara mintzatzeko gai ez izanik ere ondotxo ulertzen dutenak: MARIETA eta ELGEA. Azken honetako SAN ANDRES baserrian, 1985. urteko Urtarrilean, hil zen, 82 urtetan, Irene URIARTE SASIGAIN bertako alaba, euskaraz mintzatzeko gai omen zena.

Dena den, pertsona hauek euskara leinztar eta oñatiarren eraginez ikasia zutela dirudi.

– ARRATZU-UBARRUNDIA**k**o LAND**A**n ere bada bertako pertsonaren bat euskara ulertzen duena, LEINTZ-GATZAG**A**k haiengan izaniko eragimen berberaz, nonbait.

Probintziarteko mugak guztiz markatzen du hemen euskararena ere bai; Gipuzkoakoak diren LEINTZ-GATZAG**A**, UGASTE**G**I (GORONAE-T**A**k**o** auzoa, hau), ARAOTZ... guztiz euskaldunak dira eta eragin handia izan dute GANBO**A** eta BARRUNDIA inguruetan, azken hauek euskara aspaldixko galdua badute ere.

Hala eta guztiz badira familia euskaldun batzu Gipuzkoako inguru horietatik bertara etorriak.

– ARAMAIO da, Arabako lurraldeetan, euskara nagusi den udallerri bakarra.

– DONEMILIAGA (SAN MILLAN), ASPARRENA eta ZUIA**k**o udalerrietan ez da, aspalditik, bertako euskaldunik geratzen, Bonaparteren denboretan, jadanik, lurralde hauetatik euskara desagertua baitzen.

– ARAMAIO**k**o eta LEGUTIO**k**o hamaikatxo lagun GASTEIZ**en** bizi da, Bizkaia eta Gipuzkoako herrietatik hiri handi honetara etorriko euskaldunen kopuruak era honetan gehituz.

## NAFARROA

– BURUNDAko ZIORDIA dugu, Nafarroako Mendebaldetik Ekialderantz abiatuz, aurrenik ikusten dugun herria. Hemen, gutxi izanik ere, badira euskaldun batzu baina edo herritik kanpo ikasia dute –Gipuzkoako ORMAIZTEGIIn, ZEGAMAN...– edo SAKANAKo herri batzutatik –ITURMENDI, IRANĒETA...– etorriak dira, zail samarra gertatzen delarik Burundako euskara erabil dezakeen bertako seme edo alabarik aurkitzen. Patxi GONZALEZ de MENDIGUTXIAk, orobat, bere gazte-denboran DONOSTIA ondoko ALTZAn urte pare bat pasa zuen, gaurregun doi-doi baizik egiten ez duen euskara, neurririk handienez, burundartzat jo badaiten ere.

– OLAZTI (OLAZAGUTIA) eta ALTSATSU herrietako egoera ez da inolaz ere batere ona, adinean nahiko aurrera joan behar delarik bertan sortu euskaldunekin mintzatu ahal izateko.

– Burundako beste hiru herrietan –URDIAIN, ITURMENDI eta BAKAIKU– egoera desberdinak ematen dira; honela, lehena euskalduna mantentzen den bitartean, azken biak, ITURMENDI bereziki, nahiko egoera kaxkarrean aurkitzen dira.

– ETXARRI-ARANATZ dugu, ondoren, LIZARRAGABENGOA bere auzoarekin, Bonapartek BURUNDA-ERGOIENgo bereizkuntzatik kanpo sailkatu zuen herria. Egoera arestian aipatu bi herrietakoa baino aski hobea da, azken urteetan bertako ikastolaren eragina nabaritzen hasia delarik.

– ERGOIENen ditugun hiru herriak –LIZARRAGA (hiri nagusia), UNANUA eta DORRAU (TORRANO)– guztiz euskaldunak mantentzen dira. Aurrexeago, eta GONIBAR edo GONIERRI buruzko aipamena egiteko garaia hel dadinean, bi haran edo ibar hauen arteko mendi-gateak sorrerazten duen hizkuntz egoera aipatu egingo du.

– SAKANAn barrena jarraituz, eta ARAKIL Ibarra iritsi aitzin, ARBIZU, LAKUNTZA, ARBAZU (ARRUAZU), UHARTE eta IRINTA (IRANĒETA) ditugu. Herri hauetan hizkuntzak bizi duen egoera ez da ere, aurrekoetan bezala, batere orekatua, esan bailiteke saltoka bezala–edo ote gabiltzan, eta honela, ARBIZUko egoera, oro har, ona den bitartean, LAKUNTZAKoa nahiko makaldurik ikusten dugu, gainerako herri horietakoa ere, batzutan gehixeago bestetan gutxiago, azken urteetan ahulduz etorri delarik, kasu askotan, gainera, garai batean herritarrek ikasiriko euskararen eta orain, ikastoletan, beren bilobak ikasten ari direnaren arteko gatea, bertako euskalkiari dagokionez bederen, etenik suertatuz.

– IRANĒETA eta IHABAR herrien artean (Arakil Ibarrekoa hau), eta

euskararen erabilerari gagozkiola beti, koska haundi samarra dago. Bien artean, gainera, gaurregun birrindurik dagoen MURGINDUETA herrixka dugu, Arakilgoa hau ere bai nahiz Bonapartek, ibar honetatik kanpo, lehenxeagoko herriekin sailkatua izan. Arakil ibarra deseuskaldunduz etorri zaigu mende honen hasieraz gero, bertan sortu euskaldun guztien kopurua, ozta-ozta, dozenatxoan-edo ibiliko delarik.

Honako herri hauetan aurkitu ditugu, gehixeago ala gutxiago mintzo direla, bertako euskaldun nahiko zaharrak (gazte samar den bakarren baten salbuespenaz): MURGINDUETA, IHABAR, SATRUSTEGI, EKAI, EGIARRETA, URRITZOLA eta IRURTZUN. Ez gara, halere, gainerako herrixketan (IZURDIAGAN eta ERROTZEN ezik, agian) jaio izaniko ezin euskaldunik inon ezin aurki daitekeenik esaten ausartzen. Eritzi honek, jakiña, beste haran batzutako egoera ikus dezagunerako ere bai, orobat balio du.

Azpimarratzekoa litzateke, agian, URBASA eta ANDIMENDIko hesi naturalek guzti honekin izan duten eragina. Hala ere Bonaparte printzeak bere mapan, AMESKOA biak zuritan utzirik ere, GONIBARren gure hizkuntza indarrean zegoela argiro erakutsi zuen. Egoera hura, berariaz, gure egunotara ekarriz, bere normalizazioa iritsi ez duen edozein hizkuntza minoritariori gertatu ohi zaion bezala, euskarak azken mendeetan eten gabe ki pairatu duen atzerakadak prozesu berbera segitu duela erraz froga daiteke, GONI herrixkatik abiatu eta, oinez, lau ordutako mendi-ibilalditxo bat eginez, euskara erabat suntsiturik dagoen haran batetik haurrek ere egiten dakiten beste batera (Ergoien) iritsiz.

OSKIAz hegoaldera geratzen diren GOÑIERRI edo GOÑIBAR horri, OLLARAN –edo OLLOBARREN?– eta ITZAKo Zendeari dagokienez, badugu, izan, azkenekoak izan omen diren bertako euskaldunen berri aski zehatza, erabateko desagerpen hori, zenbait kasutan, ustez baino agian hurbilagokoak izaki. Honela, GONI herrian esate baterako, eta URRITZOLAKo gure informatzaileak jakinarazi digun bezala, berak ezagutu bertako euskaldun bat, bizi izanez gero noski, gaurregun 110 urte ingurutan egongo zen; OLLARANI dagozkion OLLO, SENOSIAIN, ARTETA, ULTZURRUN, ILTZARBE, SÁLDISE, ANOTZ, BEASOAIN eta EGI LLOR herrixketan 95 eta 115 urteren artean egongo ziren; eta ATONDO, OTSOBI eta LETE deritzatenetan –ITZAKo Zendeakoak hiru hauek–, adin hura hurbilagoa genukeen ATONDOan –oraindik ez 100 urtetan–, beste bietarako 110etan ipini beharko genukeelarik.

Hala ere gure egunotan ITZAKo Zendea honi beroni atxekirik aurkitzen den GULI (GULINA) Ibarreko AGINAGA, LARUNBE (ORAIEN auzoa) eta ZIA izeneko herri ttikietan euskaldun bakan batzu geratzen direla ongi frogaturik daukagu, denak bertan bizi ez izan arren.

– TXULAPAINen ere (JUSLAPENÑA) oso euskaldun jende gutxi geratzen da, kopururik haundiena BEORBURUari –dozenerdi bat pertsona inguru– egotzi behar zaiolarik, gaurregun hauetariko inor herri berean bizi ez bada ere, hurbilenekoak inguruko herrixketan eta Iruñean bertan bizi direnez. Ipar-ekialdeko USI herrixkan ere bazen andre bat, Urbana AGINAGA AZKARATE, euskara gaztelera baino aiseago erabiltzen zuena; andre honek 1982. urtean alde egin zigun, 91 urte zituela. Mende honen hasieretan OTSAKARren sortu andre bat ezagutzen dugu, gisa berean ere,

urte askotan ia mintzatu gabe egon arren, oraindik orain euskaraz ongiska defendatzen dena. OSINAGA, GARTZIRIAIN eta UNTZU herrietako pertsona bakanen bat bada, gutxi izanik ere zerbait ulertzen duena.

– ATEZ Haranean BEUNTZA eta BERASAIN ditugu, seguru asko, eta ordena honexetan gainera, euskaldunen kopururik haundienak beren baitan gordetzen dituzten herrixkak, gainerakoetan ere bai –ERIZEn izan ezik, agian, nahiz hemengo gizon euskaldun bat 1987. urte aldera hil den– hainbat euskaldun aurki daitekeelarik.

– EZKABARTEko ANOTZen eta OLAIBARko OLAITZen pertsona bana aurkitu ahal izan dugu –ezkabartearra duela zenbait urte Iruñean bizi bada ere–, inoiz edo behin –olaibartarraren kasuan doi-doi baizik ez, egia esan– mintzarazi ditugunak.

– ODIETAKo herri guztietan, OSTITZen ezik, bada oraindik orain norekin mintzaturik, hau gero eta bakanago gertatuz joan arren. Hala eta guztiz, inguruko haranetan eta Iruñerrian ere bai, bereziki, hemen sorturiko beste euskaldun batzu aurki ditzakegu.

– ANUE Haranean ARIZU, LEAZKUE eta ETULAIN dira, agian, euskara gehienik iraunarazi duten herrixkak, gainerako guztietan sorturiko pertsona euskaldun bat edo beste ezagutzen badugu ere.

– ESTERIBAR aldera iragan eta beheitik goitira joanez, hona bertako euskaldunak aurkitu ditugun herriak: ILURDOTZ (Bonaparte printzeak ARTZIBARko hizkerarekin sailkatua), ERREA, ZAI, ESKIROTZ, URDAITZ (URDANIZ), OSTERITZ, INBULUZKETA, LERANOTZ, USETXI, SAIGOTS, AGORRETA, URTASUN, IRAGI eta EUGI.

– Hegoaldeko ESTERIBARTik ekialdera, gure egunotan LIZOAINgo udalari atxekirik agertzen zaigun ARRIASGOITI Harana dugu. Haran hau Bonapartek eskuin-ezkerrera dituen ARTZIBAR eta hegoaldeko ESTERIBARKin batera sailkatu zuen, bi eskualde hauen arteko benetako lotura izatera zetorrelako, nonbait.

Arriasgoiti honetakoak diren ZALDAITZ, ZUNTZARREN, ILOTZ eta ZALBA herrixka-baserriei dagokienez, badugu gaurregun 95-110 urte-tan egongo ziren bertako euskaldun batzuren berri, Iruñean aurkitu dugun galduroztar pare baten kasua ere, zoritxarrez, batere ona ez izanik; izan ere, hauetako zaharrenak –85 urtetakoa– txikitan ikasi zuen apurra ahantzi omen du, gaztexeagoa den besteak ikasirikoa ere –oso gutxi, bestalde– bera urtebetekoa zela Erroibar aldera eramana izanaren ondorio, azken ibar honetan ikasia duelarik.

– ERROIBARko herri eta herrixka guzti-guztietan aurkitu dugu, kasu

batzutan asko saiatu ondoren, euskaldun bat edo beste, kopururik haundienak biltzen dituztenak, halere, LINTZOAINeta MEZKIRITZ izaki.

– AURITZEN ere zenbait euskaldun bada, baina horien arteko batzu edo kanpotik etorriak (BAZTAN, ERROIBAR, LUZAIDE, AEZKOA aldetatik...) edo, bertakoak izatekotan, askotan kanpotik etorri guraso bat edo biren semealabak dira.

– ARTZIBAR aldean zail egiten da, benetan, euskaldun mantentzen den kristaurekin topo egiterik. Azken urteotan, halere, ezagutu ditugu –edo haien berri, behintzat, izan– artean euskaraz ongi samar defendatzen ziren batzu –besteren bat ulertzeko moduan baizik ez– LUSARRETA, IREBERRI, ARRIETA, IMIZKOTZ, URDIROTZ, URITZ eta ESPOTZ herrietan, guzti hauek Urrobi ibaiari gagozkiola bakarrik, noski. Irati ibaira aldatuz gero, ordea, egoera kaxkar hau areagotu egiten da oraindik; izan ere, OROTZ-BETELUn (herri hau bere buruaren jabe eginik Artzibartik berezi bazen ere, haran honekin tartekatzen dugu adierazpen honetarako) eta AZ-PARRENen ezik –eta bi herri hauetan ere ozta-ozta baizik ez, egia esateko– ez baitugu euskararen berri haundirik eman dezakeen herririk aurkitu.

– AEZKOA aldean, gauza aski jakina denez, ARIA, IRIBERRI, ABAURREGAINA eta GARRALDA izan daitezke, agian, euskarari gehien eutsi diotenak, beste muturrean, behar bada, ARIBE, GARAIOLA eta ABAURREPEA kokatu beharko litezkeelarik.

– ZARAITZUra goazela, EAURTA, EZPARTZA eta OTSAGI dira, agian, euskarari beste zenbait herrik baino beranduxeago arte eutsi diotenak, ondotik EZKAROZE eta ORONTZE eta azkenik IBIZTA eta, behar bada, ITZALTZU darraizkiela (bidenabar: bai ote da inon azken herri honetan sortu izaniko euskaldunik?). Dena den, herri guzti hauetan geratzen diren euskaldunik gehienak –labekada berriko gazte batzu alde batetara utziz, jakiña– aurreratu samar daude adinean, oso aurreratuak zenbait kasutan.

– ERRONKARI: UZTARROZEN, inon ez bestetan, aurkitu ahal izan dugu, haran honi dagokionez, bizpahiru euskaldun, herri honetan izan baitira azken urteotan, gutxi ala gehixeago, euskaraz mintzatuz zertxobait defendatu direnak. IZABAN, aitzitik, Antonia ANAUT GARDE, artean euskaraz ongi mintzo zitekeen herritar bakarra, 1976. urtean hil zen 88 urtetan, egunotan, oraindik, ideia pixkaren bat eman dezakeen izabarririk geratzen bada ere. URZAINKIrri dagokionez, azkenik, Maria EZKER SARRIES, bertako azken euskalduna, 1975.ean zendu zen, 94 urte zituela.

– Azkenik, IRUÑEAN eta bere inguruko herrietan –UHARTE, ATARRABIA (VILLABA), BURLATA eta beste– lehen aipatu lekuetakoz zenbait euskaldun bizi da, beste herri euskaldunetatik ere hara joan den jendearekin batera, gaurregun, kopuru garrantzitsuak osatzera iritsiz.

## LAPURDI

BIDARTE, ARBONA, ARRANGOITZE (ARCANGUES) eta BASUSARRI: komuna hauek beti euskaldunak izan direnez gaurregun bertan



sortu adineko guztiak euskaraz mintzo dira. MIARRITZEko komunan badira bertako euskaldunak ILBARRITZEko kartieran (BIDARTErekin zatitua hau) eta SAINT MARTIN (MOURISCOT) –ARRAGA edo ONDARRAGA da bere izan zaharra– aintziraren iparraldean (SAINT MARTINen hiruzpalau laborari-etxe euskaldun bota zuten orain urte batzu direla). Izan ere SAINT MARTIN auzo euskalduna izan zen, eta hau MIARRITZEren historia idatzita dagoenez geroztik behintzat; hortaz, oraindik, bertako euskaldunak baditugu egun ere. Guk EGOSTARRE entzun duguna –HARAUSTA bere izen zaharra–, egun LA NÈGRESSE deritzan auzoa, aspaldidanik dugu kaskoina, bertako zaharrek mintzaera hau erabiltzen dutelarik. ANGELUko (ANGLET) SUTAR auzoan ere baditugu bertako euskaldunak; auzo txiki honek hiruzpalau laborari-etxe mantentzen du oraindik, BASUSARRI herri ttipiaren muga-mugan. Bonaparte printzeak ez zituen MIARRITZEko ez ANGELUko auzo hauek aipatu, baina garai hartan ere bai bertako euskaldunak hantxe biziko zirela pentsa daiteke.

– MILAFRANGA, HIRIBURU (SAINT PIERRE D'IRUBE) eta MUGERRE aurreko lau komunen kasu berean daude. HIRIBURUn ere badira bertako kaskoinak; gainera, komuna eta kartiera guzti hauek BAIONAKo jende askok hartu ditu bertan bizitzeko, batez ere HIRIBURU, MUGERRE, BASUSARRI eta BIDARTE. MUGERREk badu, bere hegoaldera, auzo bat guztiz euskalduna: ELIZABERRI.

– UZTARITZEko komunan, eta baita, orobat, ARRAUNTZ eta HE-RAURITZE bere kartieretan, ongi gorde da euskara egungo egunetara arte. Gaurregun, halere, gazte gutxik darabil, batez ere karrikan eta BURGUn (BOURG SUZON).

– BAIONA, ANGELU eta MIARRITZE, hots, B.A.B. deitzen zaion «hiri haundi» honetan, barne aldetik etorri lapurtar eta behenafartar euskaldun asko samar bizi da.

BAIONAn badira euskaraz mintzo diren bertako euskaldunak, baina horiek, beti ere, herri euskaldunetatik bertaraturiko euskaldunen semealabak izan ohi dira.

– LEHUNTZEko (LAHONCE) populazioaren parte haundi bat kaskoina da, herri hau kaskoin-txoko bat kontsideratzen dutelarik berek, bertako euskaldun-multzo esanguratsua bertan izanik ere.

– URKETAKo Aturri (Adour) ibai haundiaren ertzean bertan sortu adineko pertsonak mintzo dira euskaraz; BESKOITZEK, aldiz (BRISCOUS) ongi samar mantentzen du bere euskara.

– AHURTIko komuna (URT), hala nola BAIONESA (BAYONNES) eta BELOKE (BELLOC) bere auzoa, kaskoina da; hala eta guztiz badira, sakabanaturik, bertakoak diren euskaldunak ere, BESKOITZE herriaren muga aldean bereziki.

– BARDOZEN ere bada adineko euskaldun dexenterik; aztertu ditugu bere auzo diren LASARRADA eta IBARRE, hala nola karrika bera, bertako zaharrak euskaraz nahiko ongi mintzo diren ondorioarekin. Azken hogeit urte hauetan atzerakada handia egin du euskarak BARDOZEN.

– HAZPARNEko komuna euskalduna izan arren, baditu kaskoin diren bi auzo ttiki: XANTUS (CHANTUS) eta KOSTA (LA CÔTE), azken honetan euskaldunekin nahasirik bizi direla. Bi auzo hauek, honela, kaskoin-mintzairan, AHURTI eta Behe-Nafarroako BASTIDA-KLARENTZARI lotura ematen diete, handik mendebalderantz MARTINTTO etxe euskalduna ageri dela.

– LAGAILLARDIE auzoa eta GIXUNeko (GUICHE) komuna guztia «betidanik» omen dira kaskoinak, guk jasoriko informazioaren arabera behintzat; SAMATZEko (SAMÉS) komuna ere GIXUNekoaren antzekoa da, beti ere kaskoina, bi herriotan euskaldun batzu bizi badira ere.

## BEHE-NAFARROA

– BASTIDA-KLARANTZAKO kasua (LABASTIDE-CLAIRENCE) berezia da, zeren komuna hau Ozitaniako RABASTENS herritik etorri kaskoinez biztanletua izan baitzen AIHERRA herri pollitari lurra kenduz, euskal lurraldeetan ziri baten antzeko zerbeit sartzen zuela. Hala ere badira bertan, sakabanaturik, bertako euskaldunak, batez ere hiru zatitan –HAZPARNE, BASTIDA eta AIHERRAko herrien artean– banaturiko KOSTA (LA CÔTE) auzoan, HAZPARNEz mintzatzean aipatu duguna. Dena den BASTIDAKO karrikan ere badira euskaldunak.

– BIDAXUNE (BIDACHE), AKAMARRE (CAME), ERANGO (ARANCOU), BURGUE (BERGOUÉY) eta HERREITIn (VIELLENAVE SUR BIDOUBE) ez dugu bertakorik izan litekeen ezain euskaldunen seinalerik somatu ere egin. Herri guzti hautean, halere, bada, sakabanaturik, Behe-Nafarroatik bereziki etorritako euskaldunen kopuru eder bat, adibidez ERANGOn, multzo politak osatuz.

– AIHERRAK badu EXIPTOA izeneko auzo txiki bat kaskoineraz mintzo dena, BASTIDA-KLARANTZAKO komunaren mugan, PESARRU (PESARROU) auzotik hurbil.

– Adineko guztiak euskaraz mintzo diren herriak: AIHERRA, ORAGARRE (ORÈGUE) –hauetan gazte gehienek ere ausarki erabiltzen dutela–, ARRUTA-SARRIKOTA, MARTXUTA (MASPARRAUTE), GABADI, LABETZE-BIZKAI, ILHARRE eta ARBOTE-ZOHOTA, mugako herrien komunitetan.

– ORAGARREko BARTHETAko auzo ederrean euskara mintzatzen da; bertako diren 24 familietarik erdiak euskaldunak izan dira beti (12-14 etxe), besteak kaskoinak direlarik. Beraz, BASTIDAK eta BIDAXUNEK, zeinek bere aldetik, auzo hau mugatzen dute LAPURDIko BARDOZE iparraldean duelarik, azken herri hau, euskarari dagokionez, AMIKUZERI loturik geratuz.

Kontu atera behar da mugako herri guzti hauetan –eta hau berdin gertatzen da Lapurdi eta Zuberoako lurraldeetan– laborariak, aspaldidanik, etxez aldatuz bizi izan direla sarri, era honetan kaskoinak mugako euskal komunitan eta euskaldunak ere, gisa berean, kaskoinetan, bizi izan direlarik –orain ere hala bizi dira–, geroxeago, BIARNoko mugaz mintzatzerakoan batez ere, ikusi ahal izango den bezala.

## ZUBEROA

OZAGAÑE-ARRIBAREITA (OSSERAIN-RIVAREITE) eta JESTAZE (GESTAS) zuberotar komunitan biarnesez –kaskoineraz– mintzo dira, bertan euskaldun batzu izanik ere, gehienak AMIKUZE (MIXE) aldetik etorriak. Badira, hala eta guztiz, etxarritarrak eta baita aruetarrak ere.

– DOMINTXINE-BERRUETA (DOMEZAIN-BERRAUTE), ETXARRI, ARUE-ITHORROTZE-OLHAIBI, SARRIKOTAPIA (CHARRITTE-DE-BAS), ÜRRÜSTOI-LARRABILE (ARRAST-LARRÉBIEU), EZPEIZE-ÜNDÜREIÑE, MITHIKILE-LARRORI-MENDIBILE eta OSPITALEPIA: komuna hauetako adinekoek euskaraz garbi hitzegiten dute eta baita gazte batzuk ere.

– BARKOXE eta HAUZE (HAUX); bi komuna hauetan zahar guztiek eta gazte askok ere garbi egiten dute.

– MUNTORI (MONTORY): komuna honetan euskaldunak eta biarnesak aspaldidanik nahasirik bizi dira, karrikan eta auzo guztietan –BEGOSE, GASTU, ARGIBELA, ERRETXU...– bertako euskaldunak aurki daitezkeelarik, oso bakanak izanik ere.

– SANTA GRAZI (SAINTE ENGRÂCE), hainbatek «SENTAZI» deitzen diotena, guztiz euskalduna da, haurrak ere bertako euskara bereziaz mintzo direlarik.

Historikoki biarnesez mintzo diren komuna zuberotarrak bi besterik ez dira: lehenxeago aipatu OZAGAÑE-ARRIBAREITA eta JESTAZE direlakoak, hain zuzen ere; beste guztiak –MUNTORI ere barne dela– euskaldunak dira osoki edo zatian, BIARNoko (BÉARN) muga guztian, gehixeago edo gutxiago, euskaraz mintzo delarik.

## BIARNO (BÉARN)

– BIARNOan badira –Zuberoa ondoko mugaz ari gara, jakina–, bere biztanleen artean eta neurri desberdinetan bada ere, bertako euskaldunak bizi diren 16 komuna, hauetarik bat, gainera, ia guztiz euskaldun dena: ESKIULA (ESQUIULE). Herri honi BASABURIATik etorri euskaldunek eman omen zioten sorrera, OLORUEko (OLORON) lurraldeetan. BERVIELLE auzoa –eusk. BÉRBILA– dugu salbuespen hori, hemen ez baita euskararik mintzatzen. HEGIA edo KARRIKAN gazte batzu ez dira ohiki euskaraz ari, gehienek ezagutzen badute ere.

– Iparraldetik hasiz, beren baitan etxe euskaldunak dituzten bost ko-

muna ditugu, LANDAR OIHANA deritzan eskualdean (BOIS DE JOSBAIG) kokatuak: PRÉCHAQ-JOSBAIG –Zuhatzola Eihera edo Jacobe hemen dago–, AREN (euskal izena ARREN), GEUS D'OLORON, (eusk. ÜSTASÜ), SAINT GOIN (eusk. SANGUENE) eta GÉRONCE (eusk. JERUNTZE) bere 10-12 etxerekin, azken onena den LACÉ (eusk. LANDASORUTA) auzoaz gainera. Honetan bi etxe aski bereziak dira, CANTOU eta PONTAUT, betidanik euskaldunak, azken honetako familiak bertako etxe-izena mantentzen duela.

– LANDAR-OIHANAtik ipar-mendabaldeantz 3 komuna kokatzen dira. Hauek, betidanik, etxalte euskaldun bakanen bat mantendu dute, Zuberoko muga beti, noski: GURS (eusk. GÜRSE), SUS (eusk. TXÛTXE), eta CHARRE (eusk. XARRA). JERUNTZetik ekialdera, ORIN (eusk. ORI) deritzan komuna dugu, bertako bi pertsona zahar ere bai euskaraz mintzatzeko gai direla, jadanik bertan bizi ez izan arren.

– ESKIULAREN hegoaldeetik jarraituz, eta ekialdeetik hasiz, OLOROEko auzo den SAINT PÉE D'EN HAUTen (eusk. SANPE GANEKUA), eta bere DONAMARIAKO OIHANAn (BOIS DE BAS) badira etxalte euskaldunak. FÉAS (eusk. I(N)HAZI, 10-12 etxerekin), ANCE (eusk. ANTSO edo ARHANTZE) eta ARAMITS (eusk. ARAMITZE, 6-8 etxerekin) izeneko herriek NARBÉ deritzan ibar-auzoa osatzen dute, ESKIULAREkin batera. LANNEk (eusk. LANDA), BARKOXEko GAZTALONDO ibar-auzoarekin mugatua, hiruzpalau etxe euskaldun ditu; LANDAko BARLANÉSen (eusk. SARRALTZUNE) euskara ulertzen duten pertsona batzu aurkitu ditugu, baina beste zenbait herrikkatan ez bezala, biarnezat –eta ez euskalduntzat– jotzen dute beren burua.

Noski, Eskiulaz kanpoko hamalau herri-bazter hauek administrazioz biarnesak izan arren, aipatu kokapen berezi horrek badu bestetara begira jokatu ahal izateko arrazoi praktikorik: hots, ofizialki «biarnes» diren etxe euskaldun guzti horiek hurbilago aurkitzen dira ESKIULA, BARKOXE (BARCUS), MITHIKILE (MÓNCAVOLLE), ÜRRÜSTOI (ARRAST) eta OSPITALEPIAtik (L'HÔPITAL-SAINT-BLAISE) beren herrietako karrikatik baino, eta, azken batean, ulertzen erraza denez, bai elizaz bai hilerriz azken bost herri hauetakoak dira, egunoroko bizitza bera ere hauek egiten dutelarik. Hauetako asko, ia denak gainera, guztiz euskaldun sentitzen direla esan beharrik ez dago, ongi frogatu ahal izan dugunez.

– ANGOUS (eusk. ANGASTUE) izeneko komunan, MITHIKILEko auzo-auzoan, badira euskaldunak aspaldidanik, bertakoak gainera, batez ere MITHIKILE-ZERRAn (LASSERRE DE HAUT), MITHIKILE-LARRORI-MENDIBILEko komunarekin zatituriko laborari-auzoan; hauek biarnezat jotzen dute beren burua.

Badira euskaldunak, gainera, mugako komuna askotan; batez ere SAUVETERRE DE BÉARN (eusk. SALBATERRA), NABAS (eusk. NABARZI), ESPIUTE (eusk. AZPILDA), LICHOS (eusk. LEXOZE, Sen Grat sailduaren herria), eta beste zenbaitetan. BARETOUS (eusk. BARETOS) ibarrean eta bere herri nagusi den ARETTEn (eusk. ERETA) badira euskaldunak eta baita, orobat, ASPE (eusk. AZPIA) ibarreko LESCUNen (eusk. LAZKUN) familia zuberotar bat. Azkenik, OLORON (eusk. OLO RUE) eta PAU (eusk. PABE) hirietan ere bada familia euskaldun frango.

Hauxe dugu, bada, muga-herriei begiratu bat ematetik atera dugun ondorioa.

## LABURPENA

Euskarak 1980.urtean zituen mugak aztertzen dituen txostentxo honetan, aurreko beste lan batzurretan egin izan den modura, ohizko mugak esan genitzakeenak kontutan hartzen ditu. Ez hala eremu horretaz landara dagozkeen beste tokiak, adibidez, Ibaizabal ezker aldeko Bilbo aldea, edo Amurrio, Gasteiz, Agurain, Araia, Lizarra, Iruñea, Tafalla, Agoitz, Baiona, Olorue-Donamaria, Pabe, eta abar, euskara mintzo duten pertsonen koruru zinez garrantzitsua aurki hait daiteke.

## RESUMEN

En este pequeño informe acerca de los límites geográficos que alcanzaba la lengua vasca en el año 1980, se han tomado en cuenta, tal como ya venía haciéndose en otros informes anteriores, lo que podríamos denominar límites tradicionales; es decir, no se han tenido en cuenta los puntos externos a dichos límites como, por ejemplo, las poblaciones de la margen izquierda del Ibaizabal (Nervión), junto a Bilbo (Bilbao), ni tampoco ciudades y poblaciones como Amurrio, Gasteiz-Vitoria, Agurain (Salvatierra), Araia, Lizarra (Estella), Iruñea (Pamplona), Tafalla, Agoitz (Aoiz), Baiona (Bayonne), Olorue-Donamaria (Oloron-Ste. Marie), Pabe (Pau)... donde el número de personas vascófonas, en algunos casos, alcanza cifras verdaderamente importantes.

## RESUME

Dans ce bref rapport au sujet des limites géographiques que la langue basque atteignait en 1980, on a tenu compte, comme l'on a fait déjà en antérieurs rapports, de ce qu'on peut appeler les limites traditionnelles; c'est à dire, on n'a pas considéré les lieux hors de ces limites, comme par exemple, les populations de la rive gauche de l'Ibaizabal (Nervión), près de Bilbo (Bilbao), non plus les villes et villages comme Amurrio, Gasteiz-Vitoria, Agurain (Salvatierra), Araia, Lizarra (Estella), Iruñea (Pamplona), Tafalla, Agoitz (Aoiz), Baiona (Bayonne), Olorue-Donamaria (Oloron-Ste. Marie), Pabe (Pau)... où le nombre de personnes basquephones parfois atteint des quantités vraiment importantes.

## SUMMARY

In this short report about the geographical boundaries which the Basque Language reached in 1980, we have considered, such as in other previous reports, what we could call traditional boundaries, that is, we have not considered either areas outside these boundaries, as for

example, the towns or villages on the left embankment of the Ibaizabal river (Nervi3n), near Bilbo (Bilbao), or towns and villages such as Amurrio, Gasteiz-Vitoria, Agurain (Salvatierra), Araia, Lizarra (Estella), Iru3nea (Pamplona), Tafalla, Agoitz (Aoiz), Baiona (Bayonne), Olorue-Donamaria (Oloron-Ste. Marie), Pabe (Pau)... where the amount of Basque speaker population, sometimes gets a very importante quantity.